

ARETXABALETAKO UDALA

EUSKARA SUSTATZEKO PLAN

ESTRATEGIKOA (2024-2034)

2025eko apirila



elhuyar
ezagutuz aldatzea



AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
2	PROZESUAREN HELBURUAK	4
	2.1. Helburu nagusia	4
	2.2. Helburu zehatzak	4
	2.3. Zeharkako helburuak	4
3	PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK	5
	3.1. Lanerako egiturak	5
	3.2. Lan-prozedura	6
4	DIAGNOSTIKOA	7
	4.1. Sarrera	7
	4.2. Datu kuantitatiboak	7
	4.2.1. Euskara Zerbitzutik jasotako datuak	7
	4.2.2. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa (2021)	9
	4.2.3. Arlo sozioekonomikoko datuak	10
	4.2.4. Kirol-elkarteetako datuak	11
	4.2.5. Eskolaz kanpoko jardueren datuak (kirol-elkarteak kenduta)	12
	4.3. Datu kualitatiboak	13
	4.3.1. Gobernantza	14
	4.3.2. Jarrerak/motibazioak	14
	4.3.3. Ezagutza/gaitasuna	18
	4.3.4. Erabilera/elkarreragina	18
5	ARETXABALETAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (2023-2027)	20
	5.1. Nahi estrategikoa	20
	5.2. Misioa	20
	5.3. Ikuspegia	20
	5.4. Lehenetsitako erronka, lan-ildo eta ekimenak	20
	5.5. Horiek lantzeko metodologia	21

1 SARRERA

Aretxabaletako biztanleriaren gehiengoa euskalduna da. Tamalez, erabilera ez dator bat euskara-gaitasunarekin. Erabilera-datu kezkarriek, gainera, bat egin dute euskalgintzaren itzalaldiarekin eta Euskara Sustatzeko Planaren indarraldiaren amaierarekin. Hori dela-eta, une egokia izan da Aretxabaletako Udalak —eragileekin eta herritarrekin batera— normalizazioaren bidean egitekoaz gogoeta egiteko eta euskara sustatzeko proposamenak adosteko.

Horiek horrela, Aretxabaletako Udalak datozen urteetarako Euskararen Plan Estrategikoa, AROA, diseinatu nahi izan du eta lan hori egiteko laguntza eskatu zion Elhuyarri. Plana egiteko erabilitako prozesua baliaigarria izan da plana diseinatzeko ez ezik, geldialdi bat egiteko eta eguneroko dinamikatik harago begiratzeko; egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, egindako pausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egoeraren diagnostikoa egiteko.

Halaber, une hau, abagune aproposa izan da jauzi egiteko; esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeke, edota euskararen garapenaren aldeko lanean ari diren norbanako, elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzeko.

Plan guztietan egiten den moduan, oinarri edo markoa zehaztea garrantzitsua izaten da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztu berri duen AROA markoa hartu dugu oinarri Aretxabaletako Euskararen Plan Estrategikoa gauzatzeko. Gizarte honen beharrei erantzun nahi dien marko estrategikoa da AROA, eta balio nagusi hauek ditu: **adostua**, **egingarria** eta **eragingarria** izatea. **Hizkuntza-ekologiaren** begiradatik **aniztasuna** kudeatzea (eleoniztasuna; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna). **Justizia soziala** eta **gizarte-inklusioa** erdiesteko baliabideak sortu nahiz erraztea, horretarako, **zeharlerrotasuna**, **lankidetzaren** eta **partehartze koordinatua** lehenetsiz.

Elkarlanerako proposamen markoa da, eta hamarkada baterako jomuga nagusiak zein izango diren zehazten du:

1. Edozein dela ere herritarraren egoera, **euskaraz gehiago eta errazago ikasteko aukerak** handitzea.
2. **Eskolaz kanpoko ekosistema euskaldunagoa** lortzea gazteek hezkuntzaz harago euskara gehiago eta hobeto ikasi nahiz erabil dezaten. Aisialdian eta kirolean euskarak leku nabarmen handiagoa izan dezan lortzea, hain zuzen.
3. **Ingurune digitalean euskarak leku gehiago** izatea eta hizkuntza teknologien bidez euskaraz komunikatzeko aukera handiagoak lortzea. Ingurune digitalean, edukiak euskaraz sortu eta kontsumitzeko aukerak handitzea.
4. **Eremu sozioekonomiko publiko zein pribatuan euskaraz lan egiteko aukerak ugaritzea.** Euskaraz ikasitako neska-mutil gazteek lan munduan euskara erabiltzen jarraitzeko aukeretan sakontzea.
5. **Euskarazko edukiak sortu eta kontsumitzeko aukerak ugaritzea.** Ingurune digitalean bezainbat, beste edonolako testuingurutan, euskarazko edukiak sortu eta zabaltzeko baliabideak ugaritu eta kontsumitzaileen aktibazioan eragitea izango da gako nagusia.

Horiei guztiei heltzeko **kudeaketa koordinatua eta partekatua** oinarritzen den gobernantza eredua proposatzen du. Aretxabaletako kasuan ere herritarrekin egindako prozesu parte-hartzailean landu da gobernantzaren eredua, eta planean zehaztutako ekimenak aurrera eramango dituen egitura berria planteatu da.

Aroak zazpi ardatzen gainean lan egitea proposatzen du, eta honako hau da, beraz, AROaren arlo operatiboa:

ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
GOVERNANTZA		
G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman. G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan. G.3. Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu. G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.		
JARRERAK / MOTIBAZIOAK	EZAGUTZA / GAITASUNA	ERABILERA / ELKARRERAGINA
JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin. JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin. EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu. EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu. EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.	EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.
BERRIKUNTZA		
B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.		
KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA	
IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.	KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.	

Euskara ardatz duten politikak bultzatu nahi ditu AROAk. Besteak beste, horrek dakar konpromiso politikoak hartzea, hizkuntza-politikaren erronkak egitura guztietan aplikatzea, sailen konpartimentazioa gainditzea, lankidetzat modu berrietan esploratzea...

Izan ere, euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun hiztun-kopurua igotzea da erronka nagusia, eta horrekin batera, komunitatea zabaltzea eta sendotzea.

Aretxabaletako izaera, behar, helburu eta ahalmenenei egokitzeko ahaleginaren emaitza da esku artean duzun txostena. Bertan jaso da burututako prozesuaren oinarria, egindako ibilbidea eta iritsitako ondorioa. Dena den, azpimarratu beharra dago, txosten bizia dela;

Marko berri honen ikuspegia hurrengo hamarkada osoari begirakoa da, eta halaxe jaso dugu Aretxabaletako Euskararen 2024-2034 Plan Estrategiko honetan ere. Planaren iraupena 5 urtekoa izango da, baina marko berriak ezartzen dituen eta aurreraxeago zehaztu ditugun ikuspegiak, misioak eta nahi estrategikoak irismen luzeagoa izango dute, eta hurrengo bosturtekoari dagokion plan estrategikoan indarrean izango dira.

2 PROZESUAREN HELBURUAK

2.1. Helburu nagusia

Aretxabaletako euskara sustatzeko Plan Estrategikoa diseinatzeko (AROA marko estrategikora egokituta) lan-prozesuaren helburu nagusia honakoa izan da: datozen urteetako Aretxabaletako euskara sustatzeko erronkak eta lan-ildoak adostea, herritarrekin batera, eta antolamendu-ereduari buruzko gogoeta partekatua egitea.

2.2. Helburu zehatzak

- Aurreko lanaren balantzea egitea eta ondorioak ateratzea: esparru estrategikoetan garatu diren ekintzen oihartzuna eta eragina baloratzea, ondo egindakoak identifikatzea eta hutsuneak edo hobetzekoak atzematea.
- Ikuspegi anitzeko balorazioa egitea, Udaleko eta udalerriko eragileen bidez.
- Eragileek euskararen egungo egoeraren diagnostikoa egitea.
- Aretxabaletako Euskararen Plan Estrategikoa (2023-2027) diseinatzeko ildo estrategikoak zehaztea.
- Euskara sustatzeko antolamenduaren inguruko hausnarketa egitea.

2.3. Zeharkako helburuak

- Prozesuan inplikaturako pertsonen euskararen egoeraren inguruko hausnarketa egitea eta egoeraz jabetzea.
- Euskararen Plan Estrategikoa modu kolektiboan eta adostuan egitea.
- Gizarteko sektore ahalik eta gehien inplikatzea eta parte hartuko duten eragile guztien artean harreman berriak sortzea; elkarlanerako aukera berriak eta sinergiak lantzeko bideak urratzea.
- Desberdinen arteko lankidetzatik, udalaren hizkuntza-politikaren aitzindaritza hartzea eta lidergoa partekatzea.
- Prozesuan parte hartuko duten pertsonak euskararen inguruan sentibilizatzea eta trebatzea, Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko giro eta jarrera egokiak sortuz.
- Herritarrak, eragileak eta erakundeak aktibatzea eta proiektu partekatu baten parte izatea.
- Euskararen aktibazioan eragingo duten aliatuak topatzea eta euren arteko sarea sortzea.
- Euskararen aldeko babes soziala indartzea.
- Iritziak, kezkak eta esperientziak trukatzuz, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, era berean, herritarren partaidetzarako metodologia, tresna eta teknikak eskuratuz eta lan-prozesuetan nahiz bitartekoetan eraginkortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegia txertatuz.

3 PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

3.1. Lanerako egiturak

2023-2027 Plan Estrategikoaren diseinurako honako egitura hauek osatu ditugu:


TALDE ERAGILEA	
Partaideak	• Udaleko ordezkari teknikoak • Udaleko ordezkari politikoak • Elhuyar Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	• Prozesua teknikoki eta metodologikoki zehaztu eta martxan jarri. • Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jaso eta trukatu. • Hausnarketa Batzordearen egitura osatu eta martxan jarri. • Galdetegia diseinatu eta emaitzak aztertu. • Planaren segimendua eta ebaluazioa zehaztu. • Prozesuan zehar sortzen diren dokumentuak onetsi (Planaren zirriborroari ekarpenak egin). • Komunikazio Plana ontzat eman eta garapena bermatu. • Prozesuari segimendua egin, sortu daitezkeen arazoen aurrean irtenbideak bilatu eta neurri zuzentzaileak ezarri. • Prozesuaren eta emaitzaren balorazioa egin eta aurrera begirako urratsak zehaztu.

UDALEKO LANTALEA	
Partaideak	• Aretxabaletako Udaleko arlo guztietako ordezkari tekniko eta politikoak • Talde Eragileko kideak • Elhuyar Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	• AROA markoa eta lanerako prozesua aurkeztu. • Hizkuntza-lidergoaz gogoeta egin. • Diagnostikoaren indarguneak eta ahuleziak kontuan izanda, aurrera begirako erronkak identifikatu. • Udalerriko alor ezberdinetako eragile, erakunde eta espazio nagusien mapa osatu (aurretik talde eragilean landutakoa osatu). • Komunikazio-estrategiak eta ardurak adostu..

HAUSNARKETA-BATZORDEA	
Partaideak	• Aretxabaletako herritarrak, eragilea (kirol-elkarteak, ikastetxeak, merkatariak, euskara-elkarteak...) • Erreferentziazko norbanako eta herritarrak • Elhuyar Aholkularitzako teknikariak
Funtzioak	• Egungo erradiografia osatu. • Bisioa eta misioa definitu. • Datozen urteetarako erronka estrategikoak identifikatu. • Erronkei aurre egiteko estrategiak eta ekintzak zehaztu. • Plana garatzeko egituraz eta antolamenduaz gogoeta egin.

3.2. Lan-prozedura

Honako hau izan da euskara sustatzeko ekintza-plana diseinatzeko eta garatzeko emandako urratsen eskema:



4 DIAGNOSTIKOA

4.1. Sarrera

Atal honetan Aretxabaletan euskararen egoera nolakoa den laburbiltzen duten datu orokorrak jaso ditugu, baita herritarren eta herriko eragileen iritzia ere.

Diagnostikoaren fasea funtsezkoa da, batetik, egungo egoera soziolinguistikoaz jabetzeko, eta, bestetik, indarguneak nahiz hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko.

Egoeraren diagnostikoa egiteko zenbait iturritan oinarritu gara, besteak beste, Aretxabaletako datu soziolinguistikoetan, egungo egoerari eta jardueri buruzko informazioa ematen diguten askotariko dokumentazioan, eta herritarren iritzietan.

Beraz, jarraian, datu kuantitatiboek haratago, irakurketa kualitatiboa ere egin da eta egungo egoeraren indarguneak eta ahuleziak jaso dira.

4.2. Datu kuantitatiboak

4.2.1. Euskara Zerbitzutik jasotako datuak

Aretxabaletako Udalak badu Euskara Zerbitzua, eta azpian jasota daude zerbitzu horrek bideratzen dituen proiektu nagusiak:

Haur Jaioberrien Bertso Liburua: Jaioberriei bertso pertsonalizatuak oparitzea, familia transmisioa sustatzeko. Lekaixoka Bertso Eskolarekin batera Udalak aurrera eramaten duen ekimena da. Ekimen honen helburua da, aurreko urtean jaiotako haurrei bertso bana oparitzea, bakoitzari bere neurria egindakoa. Bertso-eskolak egindako bertso horiek liburu baten jasotzen dira. Ekimena borondatezkoa da, eta nahi duten guraso guztiek hartzen dute parte. Aurreko urtean jaiotako haur guztiei eskutitza bidaltzen zaie, parte hartu nahi izanez gero informazioa bidaltzeko eskatuz. Informazioa jasota, Bertso-eskolak bertsoak egiten ditu, eta Euskararen Egunaren bueltan ekitaldi xume bat egiten da Arkupeko Zinema aretoan. Bertara, haurrak eta familiak daude gonbidatuta. Ekitaldiaren ondoren familia argazkia ateratzen da, eta familia bakoitzari liburu bana ematen zaio doan.

Transmisioa: “*Biharko euskara, gaur*” liburuxka, gurasoei hizkuntza transmisioaren garrantziaz ohartarazteko, eta 4 urteko haurren gelan banatzen da. Ekimen honen bidez, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debagoieneko udalek, 8 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoengan jartzen dute fokua, adin horietan hizkuntzaren ikasketak eta familia-transmisioak duten garrantzia aintzat harturik. Liburuxka horretan, aholku batzuk eta gurasoen artean sarrien sortu ohi diren galderen erantzunak jasotzen dira.

Jira Bueltan: Jolas tradizionalak bizirik mantentzea, ahozko ondarea berreskuratuz. Jolas tradizionalak bizirik mantentzeko helburuarekin Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek sei urteko haurren artean gauzatutako egitasmoa da. Ahozko ondarearen transmisioa egitea da lan honen helburua. Hain zuzen ere, gure aurreko belaunaldiei jasotako kanta eta jolasak berreskuratu eta biziberritzea, berriz gure artean izan daitezen. Badihardugu Euskara Elkartek 2017an kaleratu zuen “*Jira Bueltan: Betiko 50 kanta eta jolas*” liburuxkan jasotako edukien artean aukeraketa egin eta gero, bederatzi fitxa prestatu dira herriko ikastetxeetako L.H. 1. mailako ikasleekin lantzeko. Lanketa tailerrak Txatxilipurdik eskaini ditu ikastetxeetan.

Gu ere Bertsotan: LH4-6 ikasleekin bertsolaritza lantzea, ahozkotasuna eta euskararen erabilera sustatzeko. Bertsozale elkartearekin batera eskoletan garatzen da “*Gu ere Bertsotan*” egitasmoa. Dagokigun kasuan, “*Gu ere Bertsotan*” proiektuarekin lortu nahi den helburua da LH4-6 bitarteko Aretxabaletako ikastetxeetako neskatila-mutikoekin bertsolaritza lantzea, euskarazko ahozkotasuna aberasteko lan-tresna gisa. Bertsolaritza landuta, Euskal Herriko altxorra den bertsolaritza babestu

eta balioan jartzeaz gain, ahozko ondarea sustatzen da, ahozkotasunari balioa emanez eta erabileran eraginez.

Hizkuntza Errefortzuak:

LHko ikasleentzat, Loramendi Euskara Elkartek eskaintzen du. Proiektu honen helburua da hizkuntza gaitasunik ez duen haurrari, aisiaren bitartez, hizkuntza baliabide minimoak ematea, eguneroko bizitzari aurre egiteko (jolastu, eskolari aurre egin, harremanak izan).

5 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei zuzenduta dago. Erabiltzen den metodologia aisian oinarritzen da, eta mintzamina lantzen da. Errefortzu saioen bitartez hizkuntza maila nahikoa lortzen denean, haur horiek euskaraz gauzatzen diren aisialdiko eremu naturaletara bideratuko dira.

Eskolaren inplikazioak ere garrantzi handia du, gauzak behar bezala joan daitezen, lehenik haur horiek detektatu eta ondoren jarraipena egiteko.

Gaur egun, hizkuntza etorkinak direnei emateko dago lizitatuta zerbitzua. Hurrengo lizitaziora begira, zerbitzua beharra duten guztiei zabaltzea da asmoa.

DBHko ikasleentzat,

Leintz Udal Euskaltegiak eskaintzen ditu:

Etorkinak euskalduntzen

Kanpotik datozen eta hizkuntzaren jabe ez diren nerabeak, hizkuntzaz jabe daitezen eta gutxieneko harreman komunikatiboa eskura dezaten lortzea da egitasmoaren helburu nagusia. Horrekin batera, euskararen ezagutza areagotzea eta erabilera sustatzea, euskararen gune naturaletara bultzatuz; eta gure gizartean integratzea eta integrazio hori euskararen bitartez gauzatzea. Proiektu honen hartzaille zuzenak nerabeak izango dira (12-16). Euskaltegiko irakasleak izango dira hizkuntza-edukiak transmititzeaz arduratuko direnak, baina ikastetxeekin harremana ere ezinbestekoa da.

Sakontze-errefortzuak

Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek eta Leintz Udal Euskaltegiak 16 bat urte daramatzate DBHko ikasleentzako euskara-errefortzuak eskaintzen. Hasieran, errefortzuekin hasteko arrazoi nagusia eta bakarra gure herrietara etortzen ziren atzeritar nerabeei euskara-errefortzua ematea izan zen, bai euren eskolaratze prozesuan laguntzeko, eta baita gure herrietan euskal hiztunak izateko prozesua bizkortzeko ere. 16 urteotan, egitasmoa behin baino gehiagotan egokitu beharra tokatu da. Adibidez, gaur egun gero eta gutxiago dira nerabe adinean datozen hizkuntza-etorkinak; aitzitik, gero eta gehiago dira HHn hasita ikas-prozesu osoa euskaraz egin duten hizkuntza-etorkinak. Euskara-maila hobetzeko beharra duten DBHko ikasleak ez dira bakarrik atzerrian jaiotakoak, alegia, bertan jaiotako ikasle batzuek ere behar dute euskara maila hobetzeko errefortzua. Hori horrela, euskarazko gaitasun nahikorik ez duten DBHko ikasle guztiei errefortzuak eskaintzeko egitasmoa abiatu da DBH 1, 2 eta 3 mailetako ikasleentzako.

Gazteak eta Euskara: Nerabeen artean hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerrak. Nerabeen artean hizkuntza-portaera berriak sortzeko tailerra da. 2024-25 ikasturteko lehen hiruhilekoan martxan jartzea da asmoa, eta DBH 3 eta 4an burutuko da. Gaur egungo errealitateari modu egokian erantzuteko martxan jarri nahi den zerbitzuari jarritako helburuak:

- Euskara erreferente bilakatzea gazteen artean. (Herriko eragileekin harremanetan jarri, adibidez).
- Euskara hauspotzeko motibazioa piztea (aisialditik, jolasetik..).
- Euskararekiko atxikimendua eta sentsibilizazioan eragitea.
- Herrigintzarekin harremana. (euskaraz sorturiko harremanak naturalizatzeko).

KEES: Kirol entrenamenduetan euskararen erabilera sustatzea. KEES proiektua, Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko egitasmoa, proiektu pilotu bezala hasi zen Aretxabaletan, 2019an, GFaren laguntzarekin. Gaur egun, zerbitzua 4 urterako lizitatuta dago. Proiektuaren hartzaileak: Aretxabaletako kirol taldeak (UDA), nahiz Aretxabaletan dihardutelako (entrenamenduak, partidak) hizkuntzaren ikuspegitik eragina duten taldeak, hala nola Arizmendi boleia taldea. KEES egitasmoaren asmoa 6-16 adin tarteko kirolarien hizkuntza-errealitatean eskuhartzea da. Entrenatzailea jartzen du hizkuntza erabileraren erdigunean eta euskaraz hitz egiten jartzen du. Modu horretan, eurentzat erreferente den entrenatzaile-hezitzaileak euskaraz egiten badu, haur eta gazteek euskaraz aritzeko aukerak handitu egiten dira.

Galdegazte: Gazteak euskarazko komunikaziora gerturatzea. “Galdegazte” Goiena telebistako saio bat da, Debagoieneko ikasle gazteak protagonista dituen elkarriketa saioa. Eskualdeko udalek, ikastetxeek eta Goienak elkarrekin landu duten egitasmoa da eta 14-17 urte arteko Debagoieneko ikasle gazteei zuzenduta dago. Gazteak euskarazko hedabideetara, kasu honetan, Goienara, erakartzeko helburua du, bai ikus-entzule gisa, bai zaletu gisa, eta gazteentzako propio sortutako eta gazteekin landutako egitasmoa da eta euskarazko komunikaziora hurbildu eta euskaraz komunikatzera ohitzea da asmo nagusia.

Euspot: Euskarazko spot lehiaketa, sormena eta publizitatean euskararen erabilera sustatzeko.

Formazioa Begiraleei: Begiraleei hizkuntzaren inguruko formazioa ematea.

C1 Ikastaro Trinkoa: Gazteei C1 maila egiaztatzeke ikastaro trinkoa.

Kirola eta Euskara, Proba Pilotua: Kirolaren esparruan euskararen erabilera handitzeko proiektu pilotua.

Eskolaz Kanpoko Jarduerak: Kirola ez diren eskolaz kanpoko jardueretan euskararen egoeraren diagnostikoa (aurrerago jasota daude ondorio nagusiak).

Aniztasun Proiektua: Kultur aniztasuna eta elkarbizitza sustatzea, euskara erdigunean jarritz.

Appa Hil: Hika praktikatzeko aplikazioa.

Merkataritza-Ostalaritza: Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzeko ekintzak.

Lan Munduan Euskaraz: Enpresetan euskara planak aktibatzea eta sustatzea.

Zaintza Ekosistema: Hirugarren adinekoei arreta estiloa aldatzea, komunitatera gerturatuz.

Proiektu hauek guztiek Aretxabaletan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzeko helburua dute, komunitate osoa inplikatur eta hizkuntza ohiturak indartuz.

4.2.2. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa (2021)

Soziolinguistika Klusterrak egindako Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa 2021 txostenean jasotako datuak laburbilduta:

Datu Orokorrak:

- Euskararen Erabilera: Klean entzundako elkarriketen % 41,2 euskaraz izan dira, % 57,7 gaztelaniaz eta % 1,1 beste hizkuntzetan.
- Lagina: 1.175 elkarriketa eta 3.521 solaskide behatu dira.
- Bilakaera: 2001etik 2021era, euskararen erabilera % 54,5etik % 41,2ra jaitsi da.

Hiztunen Ezaugarrien Arabera:

- Sexua: Emakumezkoen artean euskararen erabilera % 43,8koa da, eta gizonezkoen artean % 37,9koa.
- Adina: Haurren artean (% 56,1) eta gazteen artean (% 42,4) euskararen erabilera altuagoa da, baina adinekoen artean (% 22,2) baxuagoa.

- Solas-taldeak: Haurren artean % 45,0, gazteen artean % 42,3, heldu gazteen artean % 39,8, heldu nagusien artean % 30,1 eta adinekoen artean % 16,1.

Ondorio Nagusiak:

1. Euskararen erabileran jaitsiera: Azken 20 urteetan, euskararen kale-erabilera nabarmen jaitsi da Aretxabaletan.
2. Adinaren eragina: Euskararen erabilera altuagoa da haur eta gazteen artean, baina adinean gora egin ahala, erabilera gutxitzen da.
3. Sexuaren eragina: Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara.
4. Solas-taldearen eragina: Haurren presentziak euskararen erabilera sustatzen du, baina nagusien artean erabilera baxuagoa da.

Txostenak erakusten du euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoa dela adin-talde guztietan eta solas-talde desberdinetan hizkuntza-ohiturak indartzea.

4.2.3. Arlo sozioekonomikoko datuak

Aretxabaletako udalerrian merkataritzan eta ostalaritzan euskararen gaineko diagnostikoak eman dituen datu eta ondorio nagusiak:

1. Euskararen egoera orokorra: Aretxabaletako merkataritzan eta ostalaritzan euskararen egoera osasuntsua da, bai ezagutzari, bai erabilerari dagokionez.
2. Euskararen ezagutza: Merkatarari eta ostalariei % 72k euskaraz ongi moldatzen dira eta lanean euskara erabiltzen dute. Emakumeen euskara-gaitasuna eta erabilera gizonezkoena baino handiagoa da.
3. Euskararen erabilera idatziz: Hizkuntza-paisaia euskara presente dago, baina prezioetan, fakturretan eta menuetan hobekuntza behar da.
4. Euskararen erabilera ahoz: Ahozko harremanetan euskararen erabilera txikiagoa da, baina agurrak euskaraz egiten dira. Elkarrizketak aurrera egin ahala, euskararen erabilera apalagoa bihurtzen da.
5. Euskara bultzatzeko interesa: Merkatarari eta ostalariek euskararekiko jarrera positiboa dute eta Euskaraldian parte hartzeko prest daude.

Aurrera begirako gomendioak:

1. Plangintza: Diagnostikoari jarraipena emateko plangintza zehatza lantzea, sektoreko eragileekin prozesu bat eginez.
2. Udalaren Euskara Zerbitzuak: Merkatarari eta ostalariei Udalaren euskara-zerbitzuen berri ematea.
3. Trebakuntza Eskaintza: Euskaraz ez dakiten merkatariei eta ostalariei zuzendutako trebakuntza-eskaintza antolatzea.
4. Hizkuntza-ohiturak aldatzea: Hizkuntza-ohituretan eragiteko dinamikak martxan jartzea.
5. Sentsibilizazio Kanpainak: Euskaraz egitera ausartzen ez diren langileei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak antolatzea.
6. Baliabide materialak: Merkatarari eta ostalariei baliabide materialak eskaintzea, hala nola, errotulu estandarriak eta idazkien kopia elebidunak.
7. Hornitzaileekin harremanak: Herriko edo inguruko hornitzaileekin lan egiteko kanpainak antolatzea.
8. Herritarren sentsibilizazioa: Herritarrek establezimenduetara euskaraz hurbiltzeko kanpainak antolatzea.

9. Hizkuntza-paisaiaren ikuskapenak: Aldiro-aldiro hizkuntza-paisaiaren ikuskapenak egitea.
 - Talde Eragilea: Talde eragile bat sortzea, Udalak, Aretxartek, Loramendik, Euskaltegiak eta Elhuyarrek osatua.
 - Ekintza zehatzak: Murala margotzea, hiztegi espezifikoak sortzea, Euskaraldian parte hartzea eta *idazlaguna* dinamika martxan jartzea.

4.2.4. Kirol-elkarteetako datuak

Aretxabaletako kirol-elkarteetako euskararen diagnostikoak emandako datuak, bestalde, hauek dira:

1. Kirol Eskaintza:
 - UDA Kirol Elkartea: Futbola, karate, gimnastika erritmikoa eta pilota.
 - Kurtzebarri Herri Eskola: Kirol aniztasuna (futbola, eskubaloia, saskibaloia, erraketa kirolak, surf, padel surf, txirrindularitza, atletismo) eta jolasak.
 - Arizmendi Ikastola: Boleibola, igeriketa, areto futbola eta eskola kirola.
 - Arlutz Xake Elkartea: Xakea.
2. Euskararen Ezagutza eta Erabilera:
 - Entrenatzaileen gehiengoak (% 95) euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko gai dira.
 - Haurren eta gazteen artean, % 75-% 100ek euskaraz hitz egiten eta ulertzen dute.
 - Talde gehienak euskaraz edo bi hizkuntzatan funtzionatzen dute, baina gaztelaniaz funtzionatzen duten taldeak ere badaude.
3. Errotulazioa eta Ikus-entzunezkoak:
 - Errotulu eta ikus-entzunezko gehienak euskaraz daude.
 - Webguneak, sare sozialak eta idatzizko komunikazioak ia denak euskaraz dira.
4. Harremanak eta Komunikazioa:
 - Entrenatzaileen eta jokalarien arteko harremanak, baita entrenatzaileen eta gurasoen artekoak ere, gehienbat euskaraz dira.
 - Bilerak eta dokumentazio gehiena euskaraz egiten dira.
5. Hizkuntza Irizpideak eta Jarduerak:
 - Elkarte gehienek hizkuntza irizpideak eta eskakizunak dituzte.
 - Euskararekin lotutako jarduerak antolatzen dira, hala nola Euskaraldia eta Korrika.

Aurrera Begirako Gomendioak

1. Entrenatzaileen formazioa: Entrenatzaileei euskarazko formazioa eta kontzientziazio saioak eskaintzea.
2. Gazteen sentsibilizazioa: Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatzea, erreferente euskaldunak erabiliz.
3. Komunikazio estrategiak: Sare sozialetan eta ikus-entzunezkoetan euskarazko eduki gehiago sortzea.
4. Gurasoen inplikazioa: Gurasoekin euskararen inguruko hausnarketa eta sentsibilizazio saioak egitea.
5. Kirol ekitaldiak: Euskarazko kirol ekitaldiak antolatzea eta sustatzea.

Oro har, proposatutako ekintzak aurrera eraman ahal izango dira entrenatzaileak eta gazteak inplikaturik eta euskararen erabilera sustatuz.

4.2.5. Eskolaz kanpoko jardueren datuak (kirol-elkarteak kenduta)

Kirola ez diren eskolaz kanpoko jardueretan euskarak duen egoerari dagokionez, hona diagnostikotik eta elkarriketatik ateratako ondorio nagusiak:

1. Euskararen ezagutza eta erabilera:
 - Aretxabaletan euskararen ezagutza handia da, baina gaztelaniarako joera nabaria da, bereziki lagunartean eta eremu informaletan.
 - 6-16 urteko gazteen artean, adinean gora egin ahala, euskararen erabilera gutxitzen da.
 - Entitateetan eskaintzak eta zerbitzuak euskaraz izaten dira, baina hizkuntza-ohiturak eremu formaleetatik kanpo aldatu egiten dira.
2. Nerabeek euskara ez erabiltzeko arrazoiak:
 - Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da.
 - Euskararekiko atxikimendua apaldu egin da.
 - Gaztelaniak prestigio handiagoa du gazteen begietan.
 - Gaztelaniaz hitz egitea “guayagoa” da.
 - Solaskide batzuek ez dakite euskaraz.
3. Euskara sustatzeko gakoak:
 - Gazteen interesak kontuan hartu behar dira eskaintzak egitean.
 - Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta atxikimendua sustatu behar dira.
 - Harreman sare euskaldunak eraikitzen lagundu behar da.
 - Gurasoekin ere euskararen inguruko hausnarketa egitea komeni da.
 - Jarrera malgua izan behar da eta gazteak ez epaitu.
4. Euskararen kudeaketa entitateetan:
 - Entitate gehienek ez dute idatziz hizkuntza-irizpiderik jasota, baina egunerokoan hizkuntza-kudeaketa egiten dute.
 - Dokumentazioa elebietan idazten da eta euskarari lehentasuna ematen zaio.

Azken Ondorioak




- Kirola ez diren eskolaz kanpoko ekintza gehienak euskara hutsez eskaintzen dira.
- Langile kontratatuen, boluntarioen eta haurren/nerabeen artean ia guztiek ulertzen dute euskaraz.
- Euskararen erabilerari begira kezka iturriak daude: haur-nerabeek gaztelaniara jotzeko joera handia dute eta euskararekiko atxikimendua apalduz doa.
- Neskek oro har euskara gehiago erabiltzen dute mutilek baino.
- Guraoen jarrera eredugarria izatea garrantzitsua da, haurren aurrean euskararen aldeko eredu izanez.
- Aurrera begira, entitateen arteko dinamika edo espazio bat sortzea interesgarria izan daiteke, hizkuntza-esperientziak partekatzeko eta euskararen erabilerari bultzada emateko.

Diagnostikoak, beraz, eskolaz kanpoko jardueretan euskararen egoera hobetzeko hainbat gako eta gomendio eskaintzen ditu, gazteen interesak kontuan hartuz eta harreman-sare euskaldunak eraikiz.

4.3. Datu kualitatiboak

Datu kuantitatiboen irakurketaz harago, egungo errealitatearen diagnostiko kualitatiboa egiteko, bi galdetegi sortu ditugu.

Galdetegi bat zabaldu da Aretxabaletako zenbait eragile, elkarte eta pertsona erreferenteren laguntzarekin, ahalik ete gehien, eta 350 erantzun jaso dira. Honez gain, gazteen iritzia ere jaso nahi izan denez, gazteen artean galdetegiaren zabalkundea egin da eta erantzunen % 30 izan dira 16-24 urte bitarteko tartean daudenena. Honela banatu dira galdetegia erantzun duten herritarrak:




Elkarriketetatik, galdetegietatik eta udaleko informazio-iturrietatik jasotakoa ondorengo azpi-ataletan antolatu da:

4.3.1. Gobernantza

(Ez dugu gai hau landu)

4.3.2. Jarrerak/motibazioak

Euskararekiko duten jarrerari buruz galdetu zaie, eta azpiko grafikoan ikus daitezke galdetegiak eman dituen erantzunak:



Oro har, erantzun duten gehienek beharrezkotzat jotzen dituzte euskara indartzeko ekimenak egiten jarraitzea, eta Aretxabaletan euskara gehiago edo gutxiago egiten den ala ez axola zaie. Badago, ordea, erantzun dutenen artean mordoxka bat inporta ez zaiela adierazi dutenak. Horien iritziak arretaz aztertuko ditugu jarraian.


Aretxabaletan euskara gero eta gutxiago egiten den ala ez berdin zaiela erantzun dutenen etxeetan, oro har, euskara gutxi erabiltzen da:




Hala, euskara gutxiago erabiltzea berdin zaiela adierazi dutenei euskara zergatik erabiltzen ez duten galdetuta, erantzun gehienak izan dira **gaitasun ezagatik** eta **gaztelania erabilgarriagoa zaielako**. Gainera, horietako gehienek adierazten dute Aretxabaletako hizkuntza-errealitate anitza ona dela

euskararentzat eta euskal kulturarentzat (gutxi dira hori ona dela ukatzen dutenak), eta hizkuntzen arteko bizikidetza bultzatzeak euskarari mesede egiten diola ere aditzera eman dute herritar horietako denek.


Deigarria da, halaber, euskara erabiltzen duten ala ez galdetzean eman duten erantzuna, tentuz aztertu beharrekoa (gehienek euskara erabiltzen dutela adierazi baitute):




Gainera, herrian euskara gutxiago erabiltzea berdina zaien herritar hauen ezaugarriak erreparatuta, gehienek bi hizkuntza edo gehiago hitz egiten dituzte.



Kontrara, herrian euskararen erabilera gutxitzearekin kezka agertu duten herritarren artean (galdetegia erantzun dutenen artean multzorik handiena da, erabat nagusi dira) gehienak 3 hizkuntza edo gehiago hitz egiten dutenak dira, hau da, **eleanitzagoak dira**:




Euskara erabiltzen dute herritar hauetako gehienek:




Eta erabiltzen ez dutenen artean arrazoi nagusia **gaitasun ezarena** da, gehienek ikastea gustatuko litzaieke eta batzuk euskaltegian dauden arren, beste batzuk euskaltegiko ordutegien kariaz ikasten jarri ez izana argudiatzen dute.

Etxean erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, espero zen moduan, **euskara da nagusi**:



Kualitatiboki, herritar hauek dira euskararen komunitatearen parte sentitzen direnak hein handi batean. Gainera, euskararen indartze-prozesuan euskara dakitenek nahiz ez dakitenek parte hartu behar dutela adierazi dute hauetako denek, oso modu argian. Hizkuntzen aniztasunari buruz, ordea, gehienek euskarari mesede egiten diola aditzera eman badute ere, kontrakoa pentsatzen dutenak ere ez dira gutxi.


Euskara erabiltzeko motibazioei buruz galdetuta, galdetegia erantzun dutenek honela adierazi dituzte euren arrazoiak:



Bistakoa da erantzun duten herritar gehienek motibazioa identitatearekin, izaerarekin eta naturaltasunarekin lotzen direla.

4.3.3. Ezagutza/gaitasuna


Euskararen ezagutzari eta herritarrek duten gaitasunari dagokionez, hauek dira Aretxabaletan egin dugun galdetegitik jasotako emaitzak:




Kontuan izan behar dugu Eustatek emandako datuak fidagarriagoak direla, izan ere, beste behin ere agerian geratu baita horrelako galdetegiak erantzuten dituztenak herritar euskaltzaleenak izan ohi direla, oro har. Hala ere, azpimarratzekoa da galdetegia erantzun dutenen herenak euskaraz ez dakiela aitortu duela.

4.3.4. Erabilera/elkarreragina

Hauek izan dira atxabaltarrek etxean erabiltzen duten hizkuntzari buruz galdetegian jasotako erantzunak:




Atxabaltarrek euskara non erabiltzen duten ere galdetu diegu, hona euren erantzunak:



Aretxabaletako gune informalenetan erabiltzen da gehien euskara, dirudienez: etxean, lagunartean, tabernetan eta dendetan. Hala ere, herritarrek non erabiltzen ote duten pertzepzioa da gunerik formaletan egiten dutela: udaletxean, kultur-etxean, eta, ondoren, norberak bere etxean.

Hiztunen arteko elkarreraginari dagokionean, euskal-hiztun direnek nahiz ez direnek euskararen normalizazioan agente aktibo izan behar dutenaren kontzientzia oso hedatua dago Aretxabaletan. Baina hizkuntza-aniztasunak euskarari mesede egingo dion ala ez baloratzerakoan, dispersioa handiagoa da eta herritarrek jokaera epelagoa adierazi dute galdetegia erantzuterakoan:



5 ARETXABALETAN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (2023-2027)

Plan estrategikoa garatzeko prozesu parte hartzaile bat gauzatu dugu; herriko eragile eta norbanako nagusiek hartu dute parte, belaunaldi, eragin-eremu, genero eta ikuspegi anitzeko aretxabaletarrek, alegia. Bost saio izan dira orotara: bat, udaleko arduradun tekniko eta politikoekin; hiru, herritarrekin; eta, beste bat, herriko gazteekin, berariaz, gazteen intereseko gaiak lantzeko. Guztira, 60 herritarretik gora hartu dute parte.

Hau da parte-hartze prozesutik ateratako ondorio nagusiak:

5.1. Nahi estrategikoa

Aretxabaletan euskarak prestigioa irabaztea eta euskararen erabilera areagotzea; herriko eragileak saretu eta aktibatzearekin batera.

5.2. Misioa

Aretxabaletako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko, eta Aretxabaleta euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldean ebaluatu eta egokituko da plana, metodologia parte-hartzaile eta irekia baliatuz, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

5.3. Ikuspegia

Planaren ikuspegi nagusia, datozen hamar urteei begira, hauxe da:

- Aretxabaletan Euskararen transmisioa bermatuko da.
- Aretxabaletako gizarte esparru guztietan euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbilduko dira modu naturalean.
- Behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak emateaz gain, euskara haiena ere badela sentituko dute.
- Euskaraz bizitzeko aukerak zabalagoak izango dira; euskarak babesguneak izango ditu herri osoan.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izango dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egingo da.
- Euskararen ezagutza areagotuko da, ia herritar guztiek jakingo dute.

5.4. Lehenetsitako erronka, lan-ildo eta ekimenak

Hauek dira lehenetsitako erronka, lan-ildo eta ekimen nagusiak:

- Herri-kultura indartu, komunitate-kohesioa euskararen inguruan eraiki.
- Euskara erakargarri egin.
- Aliantzak zabaldu eta aktibatu eta elkarlanean lan egin.
- Kirola, aisialdia eta eskolaz kanpokoak arnasmune bihurtu.

- Merkataritzan eta ostalaritzan euskara eguneroko bizitzan eroso erabili.
- Euskara atxabaltarron egunerokoan erdigunean jartzea.
- Euskararen kalitatea eta ahozketasuna hobetu.
- Helduek euskarari eustea eta erreferente onak izatea.
- Gazteek euskarari eustea eta gazteagoen erreferente positibo bihurtzea.
- Ahozketasuna landu, hiztun osoak helburu.

5.5. Horiek lantzeko metodologia

Lan-ildo horiek lantzeko AROA metodologiari jarraitu diogu. Honelako taulak osatu ditugu guztiekin, eztabaida antolatu eta ekimen zehatzak identifikatzea errazteko:

Erronka	Herri-kultura indartu, komunitate-kohesioa euskararen inguruan eraiki
Lan-ildoak	Kontzientziak jorratu eta euskaraz hitz egiteko ohitura natural egin.
Ekimenak	○ Herri-mailako kanpaina diseinatu eta garatu, herriko eragile nagusiekin elkarlanean, batez ere, euskaratik harago bizi diren herritarren parte-hartzea bermatuz. ○ Zerk funtzionatzen duen, nork parte hartzen duen eta nork ez eta zer hobetu daitekeen aztertu eta ahalik eta eragile desberdinenekin landu. ○ Jarduera horiek inklusio-ikuspegiarekin landu; herriko aniztasuna aintzat hartu eta ahalik eta errealtate gehien inplikatzen saiatu. ○ Euskaldun izatearen kontzientzian eragin: sentsibilizazio-kanpainak diseinatu.

Erronka	Euskara erakargarri egin
Lan-ildoak	Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri. (10)
Ekimenak	○ Ahalegina egiten ari diren herritarren hizkuntza-portaera ikusarazi, sendotu, indartu; haien ahalegina txalotu, eredugarri bihurtu; herrian jaio edota helduaroan euskara ikasi dutenak. ○ Herrira bizitzera etortzen direnen harrera hobetu (Arrasate eta Ondarroako ereduak baliatu). ○ Euskaratik harago dauden herritarrak euskarara hurbiltzeko kanpainak egin, euskara erakargarri bihurtu. ○ Herrian antolatzen diren jardueratan parte har dezaten estrategiak landu beraiekin. ○ Euskara ikasteko zein behar, zein aukera eta zein zailtasun dituzten aztertu eta proposamen zehatzak eta erakargarriak egin.

Erronka	Euskara erakargarri egin
Lan-ildoak	Erreferente eta eragile euskaldunak sendotu, ikusarazi. (8)
Ekimenak	○ Ahalegina egiten ari diren herritarren hizkuntza-portaera ikusarazi, sendotu, indartu; haien ahalegina txalotu, eredugarri bihurtu (herrian jaio eta helduaroan euskara ikasi dutenak; herrira etorri eta helduaroan euskara ikasi dutenak...). ○ Gazte aktiboak, eragile eta sortzaileak; gazte nagusiagoek nerabeen hizkuntza-portaeretan eragin. ○ Helduek haurrengan duten erreferentzialtasunaz jabetu, erreferente euskaldunen beharra azalaraziz.

Erronka	Aliantzak zabaldu eta aktibatu eta elkarlanean lan egin
Lan-ildoak	Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean (10)
Ekimenak	○ Herriko eragileen arteko koordinazioa bultzatuko duen Euskara Batzordea osatu. ○ Herriko euskara-elkarteak zaindu eta haien eta Udalaren arteko hausnarketa-guneak indartu. ○ Belaunaldi arteko sareak eta harremanak bultzatu. ○ Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.

Erronka	Kirola, aisialdia eta eskolaz kanpokoak arnasmune bihurtu
Lan-ildoak	Familiak jabetu alor honetan euskarak duen garrantziaz (10)
Ekimenak	○ Gurasoei berriaraz landu aisialdian euskarak duen garrantzia. ○ Jarduera guztiak euskaraz gauzatzen direla bermatu.
Lan-ildoak	Kirola, aisialdia eta eskolaz kanpoko jardueratan euskararen erabilera areagotu eta orokortu.
Ekimena	○ Udalak diruz laguntzen dituen jardueratan hizkuntza-irizpideak eta protokoloak zorrotz. ○ Begirale, entrenatzaile eta abarren hizkuntza-portaeretan sakondu

Erronka	Merkataritzan eta ostalaritzan euskara eguneroko bizitzan eroso erabili (7)
Lan-ildoak	Euskara erabiltzen dutenak aitortu, ikusarazi
Ekimenak	○ Saltoki eta ostatuen euskararen erabileraren diagnostikoa egin eta euskara sustatzen dutenekin kanpaina bat burutu.
Lan-ildoak	Herritarrek aktibatu, lehen hitza beti euskaraz egin dezaten
Ekimenak	○ Herritarrek saltoki eta ostatuetan euskara erabil dezaten kanpaina burutu. ○ Euskaraz barra-barra gisako kanpainak
Lan-ildoak	Euskara erabiltzen ez dutenak euskarara ekarri
Ekimenak	○ Ostatulagunen figura sortu, Udalaren eta herritarren arteko elkarlanean oinarrituta eta gai hau modu gertukoagoan lantzeko. ○ Euskaraz ez dakiten saltzaile eta ostalarientzako berriarazko ikastaro trinkoak antolatu.

Erronka	Euskara atxabaltarren egunerokoan erdigunean jartzea
Lan-ildoak	Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu (5)
Ekimenak	- o Toki horietan euskararen kalitateari berariaz erreparatu; bertan elkartzen diren pertsonak eredu, erreferente bihurtu. - o Toki horiek kalitatezko gune bilakatu, haietan parte hartzeko gogoia piztu.
Erronka	Euskararen kalitatea eta ahozketasuna hobetu
Lan-ildoak	Euskararen kalitatea eta ahozketasuna hobetu (5)
Ekimenak	- o Ahozketasuna lantzeko dauden dinamikak indartu, berrikusi, hobetu... - o Hitanoa erabiltzeko estrategiak adostu. - o Euskara jatorra duten gazte eta helduekin kolaborazio-espazioak sortu, ahozketasuna eta herri-kultura landu.
Erronka	Helduek euskarari eustea eta erreferente onak izatea (4)
Lan-ildoak	Gurasoen hizkuntza-portaeratan eragin, erreferente on bihurtu
Ekimenak	o Gurasoein beraiekin kanpaina erraldoi bat diseinatu.
Lan-ildoak	Heldu guztiak (euskaldun izan ala ez) euskararen erreferente bihurtu
Ekimenak	- o Helduek gaztelaniaz gehien non egiten duten identifikatu eta neurriak landu haiekin. - o Kanpaina bat diseinatu haiekin, <i>helduok euskarari heldu!</i> - o Haur guztiei euskaraz kanpaina. - o Saltoki eta ostalaritzan euskaraz kanpaina.
Erronka	Gazteek euskarari eustea eta gazteagoen erreferente positibo bihurtzea (4)
Lan-ildoak	Gazteen artean euskararen aldeko jarretan eragin
Ekimenak	- o Euskararekin lotutako espazioak eta babesguneak (gaztelekua, kuartela, kirol-taldeak...) indartu. Kuartelean, berariazko lanketa egin. - o Musika-taldeak eragile bihurtu, lehiaketak antolatu... - o Entrenatzaile, begirale eta abarrekin egiten diren lanketetan haiek erreferente gisa duten rolaz jabetu eta haien hizkuntza-portaerak landu.
Lan-ildoak	Gazte askok euskararengana duten ikuspegi negatiboa aldatu
Ekimenak	- o Eskolan eta euskaltegian soziolinguistikan trebatu - o Haienganako diskurtsoak eta jarrerak landu (sekula gehiago ez: "egin euskaraz!"; ez zuzendu, ez epaitu, ahaleginak txalotu). - o Eztabaidarako, gogoetarako espazioak eta aukerak sortu.
Lan-ildoak	Ahozketasuna landu, hiztun osoak helburu
Ekimenak	o Ahozketasuna lantzeko dauden dinamikak indartu, berrikusi, hobetu...
Lan-ildoak	Euskaldun izatea, identitatea gazteekin berariaz landu
Ekimenak	- o Dauden ekimen eta espazio positiboak ikusarazi, sustatu. - o Gune seguruak sortu eta pertsonetara egokitu.

Taula horiek baliatuta sortu dugu AROA metodologiaren arabeko excel taula.